

Testu hau bakarrizketa bat da. Mikel Martinezek idatzi zuen, Pirandelloren "Uno, nessuno e centomila" nobelaren gaia egokituz, eta berak antzeztu zuen Euskalherriko hainbat taberna, kultur gela eta horrelakoetan, 1988. urtean zehar.

TESTUA

Taberna edo antzeko leku bat jendez betea. Jendea, jakina, ikuskizun honen publikoa, ikuslegoa bera da. Txoko batean zenbait ispilu. Gizasemen bat inguratzen da bertara esku batean maleta bat, bestean edariren bat etabesapean egunkaria daramatzala. Heldu ahala ispiluotan bere buruari begira hasten da, zenbait postuera eta mugimendu behin eta berriro errepikatuz: ispiluekin eztabaida bizian, bostekoa ematen, mahaia garbitzearena eginez, egunkaria irakurriz. Horrelaxe emango du denboralditxo bat ahatik eta tabernako gainontzeko jendea berari begira dagoela konturatu arte. Horretaz ohartzean biziki urduri jartzen da eta denbora luze gabe jendeari zuzentzen zaio:

Jakin leike zeri begira zaudeten?
Bi azaletako kopeta daukat ala?
Begiraiozue zeuen txilborrari, lerdo halakook!!

Azkenengo hau esan eta berehala paralizaturik gelditzen da, batpatean zeozer garrantzitsuaz gogoratua balitz bezala. Aurreko esaldiak eta jestuak errepikatzen ditu ispiluetara begira. Ez da oso konforme geratzen ikusten duenarekin, antza, etsipenezko keinua egiten bait du. Jendeaz berriro ere konturatuta hitz egiten jarraitzen du urduri, lotsati.

Bueno....barkatu. Urduri nago. Azken bolada honetan oso urduri nabil. Badakit normala dena zuek horrela begiratzea. Ispiluetan neure buruari begira ibili naizela kargutuko zineten, ezta? "Arraroa gauza!" esango zenuten. Niri derrigorrezkoa egiten zait, ordea. Baina, tira, ezin dizuet azaldu, zaila da esplikatzen.

Isilune bat. Jendeak hari begira jarraituko duenez, gure pertsonaiak amore eman eta mintzatzeari ekiten dio, bizitasun handiz mintzatu ere, azken finean gogoz eta barruko grina batek bultzatua egingo balu bezala.

Orain dela hilabete batzuk hasi zen hau guzti hau. Bost edo sei hilabete, hor nonbait. Ispilu aurrean jarrita nengoen, gauza harrigarria, benetan , nik halakorik egitea garai hartan.

Emazteak, mira eginda, esan zidan:

- Zertan ari haiz?
- Ezertan ere ez, nire sudarrari begira, hona, alde honetara. Sakatuz gero, min apur bat ematen dit.

Eta berak, irribarrez:

- Uste nian sudurra zein aldetarantz okertuta daukaan begira hengoela.
- Okertuta? Sudurra? Nik?

Eta emazteak gozo-gozo:

- Baietz ba, maitia. Erreparaiok ondo. Ezkerreko alderantz daukak okertuta.

Egia zen! Nola ez nintzen konturatu, bada, ordurarte?! Harrigarria! 30 urte, sudur xuxen-xuxena neukala sinestuta.

Harrez geroztik obsesio horrek ez zidan bakerik eman. Ezin nuen inola ere burutik kendu nire sudur galanta, ulertzen? Ulertzen nire estuasuna? Seguru nengoen mundu guztiak sudurra besterik ez zuela ikusten nire aurpegian.

- Zer? Hi ere nire sudurrari begira, ala? galdetu nion egun berean, ez dakit zeren aitzakian inguratu zitzaiadan lagun bati.
- Ez, zer ba?
- Ba.... okertuta daukadala, bai ezkerreko alderantz. Ez al duk ikusten?
- Tira, tira gizona! Hire sudurraren arduratan habil, ala?
- Ez nekien, ordea, okertuta neukanik! Emazteak esan zidak gaur goizean.
- Ez duk izango? Gaur arte ez al haiz enteratu?

Ikusi egin behar zenuten nolako irribarretxo egin zidan. Nolalo barreak egin zituen nire lepora. Orduan –esan nuen neure artean-orduan, honek ere badakik aspalditik! Eta auskalo beste zenbatek! Eta ni, txotxolo galanta, inuzentzia osoan. Batek daki zenbat aldiz ez ote dudan hitz egin nik, gixajo honek, Fulano eta Menganoren itxuragabeko sudurrari buruz, nik neuk aldean galanta izango ez banu bezala.!

Bienbitartean zegoen laguna nire aurrean, burlaz irribarreka. –Ah bai eh?- pentsatu nuen- oraingoan neuk hartuko diat bada txanda! Eta hitzetik hortzera bota nion:

- Ba al dakik hik ere ezpainak eskuineko alderantz jasotzen ditukela irribarre bakoitzean?
- Zeinek? Nik? Bai zera, gizona!
- Begira ezak hona!- eta ipilu koxkor bat jarri nion bere sudur xuxen perfekto haren aurrean.

Bere harridura irentsi ezinik baina, aitortu behar izan zuen arrazoia neukala. Axolagabe plantak egiten zituen hala ere, esanez, uskeria zela, ez ziola batere ardura.

Bai zera huskeria! Berdin ziola... esan bai! Bakoitza bere bidetik alendu ginenean ez nuen begibistatik galdu: han zebilen gizarajoa, eskaparate guztiei irribarreka, hasieran trabeska eta zeharka, eta azkenean batere disimulorik gabe.

Lasaitu egin nintzen apur bat. Ez nintzen bakarra behinik behin. Handik aurrerakoa ondo baino hobeto imajina dezaket: nire lagun horrek besteren bati aipatuko zion bere irribarrearena eta, bidebatez, akats txikiren bat aurkituko zion hari ere.

- Aizak, egia al duk irribarre bakoitzean ezpainak alde baterantz jasotzen ditudana?
- Orain konturatu al haiz?
- Eta hik, ba al dakik belarri bata bestea baino handiagoa daukarena?
- Nork? Nik? Bai zera?
- Begira!

Eta honek hurrengoari:

- Aizak, egia al duk belarri bata bestea baino handiagoa daukadana?
- Hara bestea! Orain enteratu al haiz?
- Zeri egiten diok barre? Ba al dakik hik ere sorbalda bata bestea baino gorago daukarena?
- Ixilik hago!
- Begira!

Egun haietan mundu guztia ibili zen eskaparateetan bere buruari erreparaka, zein eskutuka, zein lotsagabe, eta ispilu koxkorak erruz

saldu ziren. Handik astebetara, morroi bat etorri zitzaidan galdezka ea ote nekien bekain batean bestean baino ile gehiago zeukana.

– Bai horixe!- esan nion. Eta berehala –eta nik sudur okerra daukat, ikusten? Baina neure kabuz jakin izan dut hori, ez dit zu bezalako batek esan behar izan.

Buelta erdi hartuta bertanbehera utzi nuen. Pausu batzu eman ondoren, ordea, deika hasi zitzaidan:

- Txst!ei!... aizu! Zuek nebarreba asko izango zarete ezta?
- Bai, zer ba?
- Orduan zure hurrengoa mutila izango da, ezta, anaia?
- Hala da. Nola jakin duzu?
- Ba! Atsoen esanak. Atsoek esaten dutenez, kokotean ile mototsa baldin badaukazu, zure hurrengoa gizonezkoa izaten omen da, fijo.
- Ile mototsa?
- Bai, kokotean. Orain arte ez al zara konturatu?

Eta aho bete hortzekin utzi ninduen hantxe bertan.

Egia zen, ordea. Hara hor neure burua zein gutxi ezagutzen nuen beste froga bat. Eta beste zenbat horrelako ote zegoen? Nire gorputz osoa arakatzen hasi nintzen, mundu guztiri galdezka. Hainbat gauza deskubritu nuen: hagin txiki-txikiak dauzkadala, aurpegia alde batean baino tximurragoa dudala, paparreko hezurra sartuegia.....

Ez, ez. Ez duzue piperrik ere ulertzen. Banekien nik! Esana dizuet lehenago ere zaila zela esplikatzen. Niri berdin dit, bost axola sudurra halan edo holan izateak. Ez, ez da hori. Ea behingoz ulertzen garen. Burua estutzen hasi nintzen pentsaturik ni ez nintzela besterentzako ordura arte uste izaten nuena. Zuek nire gorputza, nire keinuak, janzkera, esaten dudana diferente ikusten eta ulertzen duzuen era berean, niganako uste diferenteak ere hartzen dituzuela

– Moskarda jauna.....

Bai, zera.....Moskarda jauna, ni naiz. Pepe Moskarda. Edo Jose, Josetxo Moskarda

- Moskarda jauna honelakoa da.
- Nor? Nire Pepe? Ezta pentsatu ere. Pepe horrelakoa da.
- Kia! Jose halakoa da.

Zoriontsu bizi nintzen bakarra nintzenean. Nik uste nuena. Orain, ostera, milaka ni nauzue. Nire kolkorako naizena eta zuetako bakoitzarentzat naizena. Milaka Moskarda, zein baino zein errealagoa, gezurrezkoagoa, ezezagunagoa. Hau nahaste-borrastea!

Nor naiz ni besteentzat. Nor naiz ni?

Ulertzen? Ulertzen orain ispiluena?. Ispiluetan neure burua zuek ikusten duzuen era berean ikusten saiatzen naiz. Egunean zehar egiten duadan guztietan: bulegoan, jaten, irakurtzen, autobusean.....

Baina...kia! Ezin da! Nire imintzio eta keinu guztiak postizozkoak, kopiatuak iruditzen zaizkit. Ispilu baten aurrean jarri neuk ezagutzen dudana antzetzten hasten naiz. Neure burua bizirik harrapatu nahi izaten dut, deskuido batean, baina ezin da inola ere. Ezin dut neure burua bizirik ikusi, kanpotik, zuek ikusten duzuen era berean.

Nor naiz nire lankidentzat? Nor nire lagunentzat. Lulu, esaidan hik. Nor dun hire Josetxo hori? Salcedo jauna. Zer deritzozu Moskarda zure langileari?

Esaidazue zuek. Nor nauzue ni. Esaidazue, zeren ni guzti horiek deskubritu behar bait ditut eta zorotzat hartzen banaute ere, benetan burua galtzen badut ere, itxuraldatu, desegin, apurtu egingo ditut.

Ispilu bat apurtu egiten du. Zatiak batu eta maletatxoaren barruan sartuko ditu. Maleta ispilu pusketaz beterik dago aurretik ere.

Puzka guztiak gorde egingo ditut. Nire amarena. Nire amaren Josetxo. Beitu ordea noalako ikusten nauen nire aita. Serio eta erresponsablea naiz Anerentzat. Jokinek, aldiz, pailazo hutsa naizela uste du.

Puzleak egingo ditut ni guzti horien zatiak nahastuaz. Jose Moskarda berriak asmatuko ditut.

Orain, zuenak behar ditut. Tira ba! Esaidazue. Nolako ikusten nauzue! Kontaidazue zuen ni. Emaidazue pusketak bat baino ez bada ere. Hartu hau trukean, hau birritan daukat eta.

Ez? Ez didazue ezer esan behar?... Orduan, zergatik behartu nauzue hitz egiten? Zer egiten duzue hor aurrean begira?

Jakin leike zeri begira zaudeten?
Bi azaletako kopeta daukat ala?
Begiraiozue zeuen txilberrari!!

Agertu zen lekutik aldegiten du.

Amaiera

"Ni eta nire sudurra"